

GOIZEAN GOIZIK JEIKI NÜNDÜZÜN

(AtopiaRPGrako bala bakarreko partida labur baterako abiapuntu ez hain laburra)

BAREAREN OSTEAN DATOR EKAITZA

PK (Post Konfinamendu) 1. urtean gaude. Krisi sanitario eta ekonomikoaren ondorioz, Eusko Jaurlaritzak **HABE** sail zaharkitua berregituratu du (**Hausnarketarako Abegidun Berpizkunde Ekonomikoa**) eta euskal gizartea erabat eraldatu duen modelo sozio-ekonomikoa ezarri du EAEn. Beste neurri askoren artean, erabat funtsezkoak ez diren aktibitate guztiak ezabatu eta debekatu dira (kultura, aisia, unibertsitatea, sindikatuak...) eta produkzioa bideratu ditu euskal baliabide guztiak. Horren emaitza zuzena **BBB** plana da (**Biztanleen Berlanbidetze Bosturtekoa**). EAEko biztanleria osoa zozketa bidez aukeratutako lanbide berriak hartzera behartua izan da, Eusko Jaurlaritzako aditu eta aholkulariek ekonomiaren egonkortzea ziurtatu arte.

EUROPA ZAHARREKO ESTOLDETAN

Gure pertsonaiek Donostiako **estoldetako brigadako langile heroiak** dira (funtsezko langile guztiak "heroi" izendapen ofiziala dute orain). Edozein faktzio eta arketipo izango dituzte, baina gaur egungo haien ogibidea estoldetan lan egitea izango da. Goizero bezala, 7:00etan Udaletxean haien arduradunarekin bilduko dira. Zeregin berezia dauka gaur haien artean. Dirudienez, **Altza** auzoan hainbat dei jaso dira, **estoldek gainezka** egiten dutela adieraziz. Haien lana bertako estoldak garbitu eta libratzea izango da. Beraz, gure langile prestuek Altza Pasealekuko ataka nagusia irekiko dute eta estoldetan barrena sartuko dira haien eguneroko ekipamendua jantzita (botak, linternak, erratzak, gauzak konpontzeko tresnak...). Sartzen ari direla, **manifestazio** batekin aurkituko dira. Altzako bizilagunak dira, azken astetan haien auzoan gertatu diren desagertpenak salatuz, udaletxea eta Eusko Jaurlaritzak ez baitie haien arazoei jaramonik egin.

EZ DA POSIBLE, EZIN LITEKE

Zer ari da gertatzen hemen? Eusko Jaurlaritzako Barne Sailaburuak, **Denis Itxasok** (hala tokatu zaio zozketan), HABEren egongortasuna bermatzeko **sekretupeko plangintza** bat sortu du Aranzadi Zientzia Elkartearen lankidetzarekin, **Paco Echeverriaren** gidaritzapean (telebista programa berri baten eskeintzaren bitartez lortu dute bere kolaborazioa). Pertsonekin **esperimentu genetikoak** prestatzen ari dira, gizateria produktiboago bat sortzeko intentzioz. Konfinamendu garaian kalean harrapatutako pertsona bakanekin hasi ziren esperimenduak eginez, baina subjekturik gabe gelditu dira. Beraz, Altzako Topo-Metro-Topo trenbidean **laborategi sekretu** bat ireki dute bertan lanean jarraitzeko. Altzara doan Topo-Metro-Topo trenbidea inork

erabiltzen ez duenez, lasai asko ibili daitezke lanean arazorik gabe. Gauez, subjektu berrien bila ateratzen dira laborategiko langileak eta Altzako paseatzaila bakartiak bahitzen dituzte, haiekin esperimenduak egiteko. Oraingoz, arrakasta tasa oso baxua izan da eta esperimenduak jasan dituzten biktimek ez dute birgirzarteratzeko aukerarik izan. Beraz, subjektuak **sakrifikatu** behar izan dituzte eta gorpuak laborategiko zulo batetik bota dituzte. Orain arte ez dira konturatu, baina gorpu horiek estoldetan amaitu dute eta buxatu egin dute auzoko estolderia guztia.

AI ZER PLAZERRA

Estoldetan barrena sartzen direnean, gure pertsonaiek ezingo diote kiratsari eutsi. (**INDAR** apustua berehalakoan botaka ez hasteko). Arratoiak ere barnekaldetik ihesi datozela ematen du (**TREBEZIA** apustua arratoiak bidean kosk egin ez diezaiten: Mina: 1D6) Barneratzen diren ahala, buxadura geroz eta handiagoa da, eta azken astetan ikusi dutenaren arabera, inoiz baina kirats nazkagarriagoa nabari dute. Pixkanaka, ohiko gorotz eta zikinkeriarekin batera, bestelako kontuak ikusiko dituzte: odola, barne-gorputz atal indeterminaturen bat (giltzurruna? gibela?)... Azkenean, estoldan barrena sartzeko adorea badute (gorputz erdia kakatan sartu beharko dute), buxaduraren oinarrira helduko dira: goragaleaz haratago doan ikuskizuna dute begien aurrean: erdi-usteldutako gorpuak bata bestearen gainean pilatuta daude, Dantek inoiz irudikatuko ez zuen mendi bat osatuz. Hemen zerbait gertatzen ari da.

Gorpuak hona nola iritsi diren datozen jakin nahi badute, estokdetako sabaian zulo bat ikusiko dute. Zulo horretatik gora igotzen badira (**TREBEZIA** apustuak ez erortzeko, mesedez) Topo-Metro-Topoko trenbide sarera iritsiko dira.

Trenbidean aurrera eginez gero, bihurtune batean trenbidea horma batek mozten duela ikusiko dute. Horma faltsua omen da? Paretaren ondoan panel bat dago, teklatu batekin. Bertan idatzi beharko dute horma faltsua irekitzen duen pasahitza. Pista lagungarri moduan hauxe dago idatzia panelean: "Ez gehiago esaldi hau idatzi gure horretan, otoi!". Erantzun zuzena, nola ez, hauxe da: **"Maite zaitudalako sortzen dut"**.

Teklatuan esaldi hori idaztean, horma irekiko zaie.

BIDEA DA HELMUGA

Trenbide sekretua jarraitzen badute, kontu handiz ibili beharko dira, trenak bertatik igarotzen baitira. Ezkutatu egin beharko dira tren gidariek ikus ez dituzaten (**ERACINA** apustua). Halako batean, ihesi datorren batadun haur bat

aurkituko dute. Laborategitik ihes egin du eta laguntza eskatuko die gure protagonistei. Azkar ibili beharko dira, ertzainak atzetik jarraika ditu eta. Ertzainak despistatu edo garaituz gero, aurrera egiteko aukera izango dute. Azkenik, laborategira iritsiko dira. Bertan **best ziega** ikus daitezke, eta bakoitzean gizaseme bat, kasko banarekin. Kaskoetatik kolore desberdineko kable eta hodiak ateratzen dira, makineta konektatuak. Laborategian, **hainbat zientzilari eta teknikari** lanean ari dira, eta baita **Denis Itxaso eta Paco Echeverria** ere. **Ertzaintzako zenbait agentek** laborategia armekin zaintzen dute. Gure pertsonaiek plan bat zehaztu beharko dute 5 subjektuak askatzeko. Aurretik gurutzatu dituzten ertzainez mozorrotu daitezke, ala indarrez sartu laborategian. Haien esku.

BERANDU DABILITZA

Dena dela, azken sorpresa bat aurkituko dute gure protagonistek: esperimenduak batek sekulako porrota izan du: ihesean aurkitu duten haurra, hain zuzen. Haurra bat-batean buruko minez lurrera botako da. Bere gihar eta gorputz atalek "igotze desnatural" bat jasango dute eta haur txikia zena **3 metroko munstro basati** batean bilakatu da. Haurrak helburu bakarra dauka: ikusten duen guztia txikitu. Ez du lagun eta etsaien artean bereizketarik egiten. Eta gure pertsonaiek saltsa guzti horren barruan ikusiko dute haien burua. Ea hemendik ateratzeko gaitasun/adore/zortea duten.

IHES BETEA ZILEGI BALITZ

Zurrumbilo honetatik ateratzeko aukera posibleak, maizterra eta jokalarien esku:

- **Ertzaintza eta munstroarekin akabatu** (nahiko konplikatua).

- **Ospa egin**: Ertzainak eta munstroak atzetik etorriko zaizkie, baina ez dira inoiz egun argira aterako (ikus "Pertsekuzio eta ihesaldiak": AtopiaRPG 172 orrialdea).

- **Laborategiko tramankuluak erabili**. Laborategira sartzen badira, bertan ziega berezi bat aurkituko dute: **Denbora makina** bat da. Teklatu bat eta botoi gorri handi bat dago ziegaren erdian. Sakatuz gero, teklatuan idatzitako gari eta ordura joango dira ziega barruan dauden guztiak. Ziegara iristeko, ertzain eta teknikarien gainetik pasa beharko dute, baina aukera seguruenan izan daiteke.

- Jokalarien beste **aukera zororen** bat?